

Emilio Lopez Adan

## Gaizki esaka

**g**obernatzen gaituen politikarien kasta, latza da, lotsarik gabekoa. Beren artean bizi dira, eta beren kastako funtzionarioak izendatzen dituzte, gezurrez eta harrokeriaz politikariak herriarengandik baztertze. Gehiago dena, gure politikariek ez dute demokraziaren zentzurik. Behin hautatuta, nahi dutena egiteko haizu direla iruditzen zaie. Demokraziaren zentzua –edo eza-gutza– balute, jakinen lukete hauteskondeek gobernatzeko zilegitasuna ematen badute ere, demokrazia ez dela soilik gobernatzeko legitimitatea. Demokrazian sartzen da ere jendearen etengabeko parte hartzea, elkarte, manifestazio, proposamen, kritika eta beste anitz mekanismoren bidez egiten dena, eta politiko demokratikoez ulertzen dute hori, eta jendar-tean sortzen diren mugimenduak babesten eta entzuten dituzte. Gure politikariak eta haien funtzionarioak ez dira horrelakoak: nahi dutena beren artean erabakitze zilegitasun osoa dutela uste dute eta, zilegitasunaren gainetik, boterea maite dute.

Zergatik purrustada hori? Eskandalizatua naizelako. Iparraldeko hiltamu honetan, euskararen egoerak mintzen nau, eta Eusko Jaurlaritzaren azken balentriek sumintzen. Jaurlaritzako Kultura Sailak euskara eta hizkuntza politika gaitan elkarlanean aritzeko hitzarmen bat sinatu berri du Frantziako Euskararen Erakunde Publikoarekin. Jaurlaritzako bozeramaleek “hitzarmen historikoa” goraki laudatu dute, nahiz eta eduki oso murrizta izan: finean, Hegoaldeko laguntzak –milioi erdi bat euro– elkartengana zuzen joan ordez, EPPren eskuetan geldituko dira, erakunde horrek bana ditzan.

Handik egun batzuetara, Frantziako Hezkunde Nazionalak irakaskuntza publikoaren eskola elebidunetan lan postuak murriztuko direla jakinarazi du. Eskandalua, mina euskaltzale eta gurasoen artean, eta hara han EPP prentsa aitzinean: bai, erabaki horiek ez direla koherenteak euskararen aldeko jarrerekin, baina boterea Hezkunde Nazionalak dauka eta ez EPPk... Hots, hizkuntz politika eramateko gaitasunik ez dutela.



DANI BLANCO

«  
EPP ez da sortua euskararen  
garatzeko, sortua da militante eta  
elkarteez egin dutena kontrolatzeko,  
euskalgintza bere miserian ito eta  
hil dadin ordenu publikoa  
sobera nahasi gabe  
»

Geroxeago, Seaska: ikastolek arazo handiak dituztela irakasle postu berriak edo ikastola berriak sortzeko; orain mintzakide bakarra EPP dute, eta jakinik gaitasunik ez duela, zepo batean sartuta dagoela dio Seaskak. Hots, hobe lukeela Eusko Jaurlaritzak elkarte euskaltzaleei laguntzak zuzen ematea, EPPren esku utzi ordez.

Nori sinetsi? Politikari eta funtzionarioei, “akordio historikoa” goraiatzeko dutenei, edo arazoak eta zangarteak salatzen dituzten elkarte eta euskaltzaleei?

Klarki, EPP engainu bat baizik ez da. Eman dioten lekua ulertzeko, horra bere filosofia, hasieratik jakinarazi zuen bezala: “euskara, orain arte, elkarte eta militanten eskuetan izana da; hemendik aitzina, administrazio eta adituen eskuetan jarraituko!” Lapurreta hori urrats historiko bezala aurkeztu zuten, eta horrekin joan ziren Euskadiko Erkidegora: “zuek bezala nahi dugu, Administrazioak gobernatu, eta elkarteak aholkulari soil gisa geldituko...”. “Oso ondo”, esan zioten Euskadikoek, “hori da hori hierarkien errespetua demokrazian!”. Bikaina. Baina Autonomia Erkidegoan euskara ofiziala da eta bada euskararen aldeko politika.

Frantzian, euskara ez da ofiziala, euskarari onarpen publikoa emateko gogorik ez da, eta, horiek hola, hizkuntza politikarako baliabide guztiak Frantziako administrazioaren eskuetan uztea erokeria hutsa da.

Administrazio horien morroi, EPP ez da sortua euskararen garatzeko. EPP sortua da militante eta elkarteek egin dutena kontrolatzeko, euskalgintza bere miserian ito eta hil dadin ordenu publikoa sobera nahasi gabe. Jaurlaritzak eman dirua baliatuko da aditu nekrofagoen ikerketak finantzatzeko edota EPPren koktelak ordaintzeko, baina funtsezko erabakiak beti hartuko dira eta frantsesaren aldeko politika hutsa daramaten instituzio nagusietan.

Jaurlaritzako ordezkariak oso pozik egon dira elkarteak baztertuz eta “Frantzia Handiko” ordezkariarekin bilduz. Finean, kasta latzeko politikari eta funtzionarioen artean egon dira, etxean bezala. Deus ez zen eskasik, lotsa amiñi bat baizik. ▢